

**AITA ELISEO**  
**(SEBASTIAN LEJARZA GOROSTIZA, 1919-2006)**  
**(KULTUR EKINTZAILEA)**

Aita Eliseo 2006ko urriaren 21ean, eguerdiko 12:40an hil zan. Hurrengo egunean, igandean, 22an, eskela bi agertu ziran egunkarietan. Eta 23an beste bost: 1) “*El Carmelo*” ikastetxeko anaidiarena; 2) familiarena; 3) “*Abes-Kimu*” *Abesbatza* musika taldearena; 4) “*Brioletak*” haurren koruarena; 5) “*Trailuak*” antzerki taldearena. Azken hirurak zirrara handia sortzen eben maitasunezko agurrak eskaintzen eutsoezan Aita Eliseori.

Egun horretan, 23an, izan zan hileta-ospakizuna bi hizkuntzatan. Buru-lanetan Aita Jose Luis Ureta, Euskal Herriko karmeldarren probintziako lehen kontseilariak jardun izan eban; alboan 37 apaiz lagun, eta Larreako eliza (koru, klaustro eta inguruak) bete-beterik gainezka. Karmeldarren etxeetako ordezkariez gainera, Aita Palau dontsuaren kongregazioko hainbat kide karmeldar bere izan ziren bertan; era berean, baita, ikastetxeko ikasle izandako hainbat eta, zelan ez, Aita Elizseok sortu eta zuzendutako musika eta antzerki taldeetako hainbat eta hainbat gazte. Danak emon gura izan eutsoen bat eginda azken agurrik beroena maitasunez hain lagun ona izan ebenari.





Giro maitekor eta bero horren agergarri ditugu Aita Uretak gomutara ekarritako hainbat datu pertsonal bere:

*“Nire eta aldare inguruan gagozan gebienon gomuta abaztu ezina eta esker onez beterikoa da. Makaltasun handikoak, oraindino 11 edo 12 urteko ikasle-umeak ginala, alboan izan genduan bere arnasa, laguntza eta ereduzko jarrera. Bera-gandik ikasi genduzan oinarri-oinarrizko honako zerok: otoitz egiten, kontzientzia aztertzen, hau da, geure buruagaz autokritikoak izaten, eta jolas eta jokoetan duintasunez galtzen eta irabazten. Gizon eta erlijioso izaten irakatsi euskun. Horrela gogoratzen dot nik. Eta ez dakit zelako etorkizuna izango gendudian gure arteko askok, bur-burrean lagun on hori izan ez bagendu. Esaterako, jokalaria modura parte hartzen eban futbolerako zaletasun barik (jakina, batzuetan onura izaten eban abitu eta guzti jokatzean); beste batzuetan arbitro lanetan bere jarduten eban, guretzat aitu ezinezko hainbat arau betetzen irakatsiz. Esaterako, ez genduan ikusten zergatik zan falta bi baten kontra jokatzea edo zergatik izan behar eban penalti zigorra kanpora baloia botatzeak. Entrena-*

*menduak eta zaletasunak nabasian ibiltzen ziran ikasketa-jardunen artean eta horrek hainbat burubauste eta ardura uxatu euskuzan saio haretan. Eliseoren presentzia zeruko oparibat izan genduann. Horregatik bor-bor datorriguz burura gure gazetako jazoera borreek, eta geure bokazioan pozik dihardugun karmeldar erlijioso izateko bidean jarri ginduzan pertsonarenganako esker onezko iturri biburtu jakuz”.*

## **Komunikabideetan bere oihartzuna izan eben jazoerok.**

Baina nor dogu Aita Eliseo? Egin-eginean bere, itaun honi erantzuteko bere bizitzako eta jarduerako gorabehera batzuk ekarriko ditugu hona: beraren erlijioso bizitza, Amorebietako ikastetxean burututako jarduera, kultur ekintzetan izan eban parte-hartzea eta euskararen alde egindako lana.

Aita Eliseoren bizitzako datuak aurrera ekarterakoan, gogotan izan behar dogu Aita Eliseori buruzko hainbat datu autobiografiko Gasteizeko karmeldarron artxibo probintzian aurkitzen dirala. Beste datu labur batzuk Zornotzako komunikabideetan jaso izan dira. Hor ditugu, esaterako: Ziortza ARTA-BE-ren *Eliseo Lejarza: Arkalaz* (8.zk., 2001eko gabonak) 6-8 orr.; DBHO-ko 2. mailakoen *Gure Aita Eliseo: Erdu* (ikasleen aldizkaria-*El Carmelo* Ikastetxea) 2006, 5-6; Unai LARREA-ren *Aita Eliseo: “Bakea baino gauza zoragarriagorik ez dago”*: *Gure artean* (Arratia eta Zornotzako aldizkaria) 4 (1997ko azaroa, 25. zk.) 2; eta abar.

Aita Felix Duralde Amorebietako ikastetxean bizi den karmeldarrak idazlan bat argitaratu eban Karmeldarron *Vinculo* barne-aldizkarian (2006ko abenduan, 199. zk., 33-35). Guk azken idazlan hau erabili dogu, batez bere, honako biografia hau osotzeko.

## **I. BIZITZAKO GORABEHERAK**

Aita Eliseok bere jatorrizko oharretan eskaintzen deuskuz bizitzako oinarritzako barriak. Zeanurin (Bizkaia) jaio zan

1917ko abenduaren 5ean; bere gurasoak Juan Pedro Lejarza eta Juana Goroztiza izan ziran; guztira bederatzzi neba-arreba izan ziran. Zeanuriko parrokian bateatu eben.

Lehen ikasketak, bost urtetik hamaika urtera artekoak, auzoko eskolan egin zituan. Hamaika urte zituala, 1929ko otsailaren 3an sartu zan Aita Karmeldarrok Larrean genduan Ikastetxe zaharrean. Lau urte geroago, 1933an, aldatu zan Larreako nobiziatura, eta bertan egin zituan urtebete geroago karmeldar erlijiosoen botuak 1934ko irailaren 14an.

Botu eginbarrien urtea Markinan egin eban. Horren ostean, filosofia eta teologiako ikasketak Iruñean (urtebete), Corellan (hiru urte) eta Markinan (hiru urte). Gerra zibilean soldadutzara joan behar izan eban. Soldadutza-urteak Iruñean, Katalunian eta Etremaduran egin zituan. 1938ko zezeilean ekin eutson bideari Iruñean idazkari lanetan, eta geroago, irailean Leridako frontera aldatu eben; 1939an Caceres probintziara eroan eben eta urte bereko udan bialdu etxera.

Markinan teologiako hirugarren urtea amaitu ebanean egin eben apaiz 1943ko garagarriaren 27an, Gasteizen. Hurrengo urtean emon eutsoen lehen komentu-izendapena; egin-eginean bere, Markinakoa; bertan egin zituan lau urte apaiz lanetan, etxean eta inguruko herrietan; igandeetan Iturreta auzoko San Kristobal ermitara joaten zan meza esatera.

1948ko abuztuan bialdu eben Markinatik Zornotzara, bertan eratu barri zan Amorebietako Ikastetxe-Seminarioko lehen anaidira, zuzendariorde izendatuz; kargu horretan egin zituan 18 urte. Bertan bizi izan zan 2006ko urriaren 21ean hil zan arte. Hau da, Amorebietako ikastetxean 58 urtetik gora egin zituan.

Bat-batean agertutako gaixotasun larriak egun biren barruan eroan euskun beste mundura. Urriaren 19an txarto sentitu eta klinikara eroan eben, eta biharamunean ebakuntza-gelara; barruak irekitzerakoan ez egoela ezer egiterik ikusi eben, eta hurrengo egunean, urriaren 21ean hil zan.



Amorebietan egindako urte ugari horreetan hainbat kargu izan zituan Aita Eliseok ikastetxean nahiz anaidian. Zuzendariordearen lanaz gainera, irakasle bere izan zan, batez bere musika eta euskara irakatsiz.

Bere bizitzako asken urteetan egin zituan bi jarduera sozio-erlijioso eta kultural gogora ekarten hasi aurretik, berak 1990ean, 73 urte zituala, irailaren 20an idatzitako idazki bat aitatu behar dogu. Honela dino:

*“Bi gurari neukazan. Beti izan dot gogoan karmeldar izateko asmotan gure artean ikastetxean izandako antzinako ikasleak batzea. Hasieran hartu-emon estuagoak izandakoak batuz basi nintzan. Zuzendariorde nintzala nigaz izandakoak. Gerrogo, beste hainbeste egiteko eskatu deustee zuzendariorde izan ez ninduen hainbatek. Aurten ikasturte danetakozen zerranda eginda izatea itxaroten dot. Zoritxarrez, eta atsekabe handia dodala, ezingo ditut danen helbideak eskuratu; aurkitu ditudan guztiak bere ez dira gure artean izango.*

*Bigarren guraria: abesbatza baten zuzendari izatea izan da. Hau bai dala, nire adinean, benetan gurari zoroa! Gebiago*

*oraindino, nire musika-ezagutzak ez dirala beste mundukoak gogoan izanik. [...] Aurkezpen handia, ospetsua, nire ustetan estreinaldia, Bilboko Ayala antzokian izan genduan. Hango txaloak eta lortuta arrakastak lainoetan zehar edo erabili ninduen hainbat egunetan”.*

Ohar biografiko huts honeei amaiera emoteko, Aita Eliseoren bizitzako jarduera danen eragile izan dan nortasunaren ezaugarri batzuk aurkeztu gura deusueguz, orain dala gutxi hainbeste urtetan etxeko lagun izan dauan Felix Duralde-ren berbak hona ekarriz:


*Aita Eliseo, adiskide-giroan –Eli- deitzen genduan, pertsona apala, ezagutu eben danentzat maitagarria izan zan. Inguruko danak maite zituan pertsona. Maitasunez beteriko gizona. Beti laguntzeko eta mesedeak egiteko gertu izaten zan pertsona. Oso esker onekoa. Gaua eritetxean berarekin igaro eban Aita Felix Duralderi, konortea gadu aurretik bere azken agurra egitean honako berbok esan eutsozan: “eskerrik beroenak gaua nire ondoan egiteagaitik, eta parkatu lo egiten ez iztea”. Paseatzera ateratzen zanean bidean aurkitzen zituan danak agurtzen zituan ezagunak izan edo ez. Norbaitek esaten baeutson: “harriturik begiratu zaitu eta ez deutsu erantzunik emon”; ez deutso ardura, hurrengokoan agurtuko nau” erantzuten eutson.*

## II. KULTURAKO EKINTZETAN

### *Musikazalea*

Aita Eliseori buruzko prentsako lan batek bere berba honek jasoten ditu: “*Bizitza osoa otoitz egiten, ikasten eta kantatzan igaro dot*”. Oraingo honetan azken hori aitatu gura dogu.

Amorebietako ikastetxea geroago karmeldar izango ziran gazteentzako barnetegia zanean Aita Eliseo tiple-talde baten zuzendari eta piano jotzaileen irakasle lanetan ezagutu genduan.







Musikari eutson zaletasunak bi musika talde sortzera bultzatu eban: hau da, ikastetxean ikasle izandako nagusiekin “*Abes-Kimu*” *Abesbatza* eta “*Brioletak*” umeen korua sortzera.

Musika jardueraz gainera, barru-barrutik bizi izan eban antzerki zaletasuna. Gu ikasle ginanean urtean zehar egiten ziran hainbat ospakizunetan (gabonetan, zuzendariaren urtebetetze egunean,..) berak izaten eban antzerki edo horrelako zerbait gertatzeko ardura. Geroago, bide horretako zaletasunak bultzaturik, Amorebietako “*Aretoan*” eta Bizkaiko beste hainbat herritan antzerki-lanak taularatu izan ditu berak sortutako “*Trailluak*” Antzerki Taldeak.

Urteak aurrera egin ahala, geroago eta ospe handiagoa hartu eban Aita Eliseok. Amorebietan kultura alorrean egindako lan ugaria eskertzeko hainbat omenaldi jaso zituan Amorebietako “*Aretoan*”. Omenaldi horreen bidez herrian egindako kultura-jarduera goratu eta eskertu gura izan deutso Amorebietako herriak.

Aitatzekoa da 1997ko urtarrilaren 3an jaso eban omenaldia. Irrati eta prentsa bidez karmeldarrari musika eta antzerkia bultzatzen egindako lana gogora ekartzeko Amorebietako “*Zornotza Aretoak*” omenaldi bat egingo eutsola iragarri zan. Horrela, gaueko 9etan, bere eraikitze-egunaren hirugarren urteurrenean, “*Zornotza Aretoak*” omenaldia eskaini eutson Amorebietako kultur bizitzaren alde eskuzabaltasun hutsez urteetan zehar egindako lana eskertu guran.

Omenaldi horretan gogoz goratu eben berak musika, antzerki amateur eta euskararen alde “*El Carmelo*” ikastetxean hezitzaile lanetan egindako lana, Amorebieta-Etxanoko udalerriari kultura-elkarteak sortzen egindako lana eskertuz.

Omenaldi horretako egintzarik ederrena abesbatzen gabonkanten kontzertua izan zan. Zornotzako hiru abesbatzek – “*Alaiak*” koruak, “*Zornotza*” koruak eta “*Abes-Kimu*” abesbatzak- eta “*Brioletak*” umeen koruak parte hartu eben. Txalozaparrada galanta jaso eben.

Amaileran, Kepa Odriozola Amorebieta-Etxanoko udaleko Kultura Batzordeko buruaren hitzaldi laburraren ostean, Alberto Gurtubay alkate jaunak *Zornotza Aretoaren “zilarrezko idazkia”* oparitu eutson.

Baina, heriotza ostean bere egin deutsoe omenaldi bat, egin-eginean bere, 2007ko urtarrilaren 20an; egun horretan “*Trailuak*” antzerki taldeak “*Don Arnando Gresca*” antzeztu eban, eta batutako dirua Perura bialdu dabe ongizatezko egintza bat bultzatzeko.

Aitatu dogun “*Abes-Kimu*” *Abesbatza* 1988. urtean sortu eban. Abesbatza horrek hainbat tokitan, besteak beste, Moskun izan ditu emonaldiak. “*Pueri Cantores*” fundazioak antolatutako kongresu batean parte hartzeko “*Abes-Kimu*” *Abesbatza* taldeak -Aita Eliseo eurekin zala- Astorgara (Leon) egindako bidaia batean, Juan Carlos Villacorta, Federazioko buruak, Asturiaseko prentsako dekanok “*Seminario de Llanes*” egunka-



rian honako hau idatzi eban: “*El P. Eliseo es un personaje vasco inefable. Traía a mi memoria las virtudes del pueblo vasco: su dignidad, sentido común, su laboriosidad, su resistencia ante las dificultades, su perseverancia en el trabajo humilde de cada día, su estar siempre en el terreno al lado de los suyos, sentados en el suelo en corro*”.

### **III. EUSKALTZALEA**

Kultura ikuspegitik nabarmentzekoa da, baita bere, euskarari eutson maitasuna nahiz euskararen alde egindako lan isila. Urte askotan euskarazko eskolak emoten jarduteaz gainera,

euskarazko ipuin lehiaketetan eta olerkiak euskaraz idazten bere parte hartu eban. Egia esan, idatzi zituan lanak ez dira ugariak, baina, bai euskarari eutson maitasuna agertzen daben egintzak.

Bere abade jardunean sarri erabilten eban euskara. Elizkizunetarako abade euskalduna gura eban batek baino gehiagok zor deutsoz eskerrak! Horrelako eskariak jasotean, beti izaten zan gertu laguntzeko. Behar bada, gehiago idatzi ez baeban, horretarako sasoirik onena izan ebanean euskararen inguruan izan ziran eztabaidengaitik izan zan.

Karmel aldizkariaren ale honetan hiru aldizkaritan euskaraz argitaratu zituan olerkiak batzen ditugu, omenaldi bero bat eskaini guran.

Goian bego gure Aita Eliseo maitagarria, eta gure artean ereindako haziak ekarri deiala frutu ugari.

*J. U. -P. U.*